

USURBIL / Bi kultur emanaldi gaur Sutegi eraikinean

USURBIL. DV. Gaur arratsaldean eta gauean bi ekitaldi izango dira Sutegi eraikinean. 18:00etan Pello Añorga ipuin kontalaria izango da liburutegian eta gaueko 22:30ean 50 urte bertso jarrien emanaldia eskainiko dute Xabier Amuriza eta Mixel Ducauk auditorioan.

Udalak antolatuta, ipuinak entzuteko aukera izango dute 4 urte inguruko umeek gaur Sutegiko udal liburutegian. 1986an ipuinak kontatzearen abenturan hasi zen Pello Añorga izango da gaurko ipuin kontalaria eta Euskal Herrian zehar kontatu izan dituen ipuin horietatik batzuk entzuteko aukera izango dute liburutegira gerturatzen direnek.

Gaueko 22:30ean, berriz, Xabier Amuriza eta Mixel Ducau hurbilduko dira Sutegiko auditoriora. 50 urte bertso jarrien emanaldia eskainiko dute bertan. Izenak berak dioenez, azken 50 urteetako pasarteetaz arituko dira, bertso musikatuaren bitartez. Berezia izango da emanaldia, herriko historia, gai politikoak, gai sozialak, euskara... landuko baitituzte. Mixel Ducau berak solista piezak ere eskainiko ditu gaurko emanaldian.

Noaia! Kultur Elkarateak antolatu duen Kultur Hamabostaldiari amaiera emango dio duela 28 urte Puntapax haurtzaindegikoak antolatu zuten jaialdiaren haritik iritsi den saio honek.